

Musika

Capsula

«Musika egiteak mugiarazten gaitu»

“Guk musika egitea dugu helburu: maite duguna, ilusioa egiten duguna eginez bizitzea. Agertokira igotzeak bizirik sentiarazten gaitu –diote Coni Duchessek eta Martin Guevarak, Capsula taldearen sortzaileek–. Pretentsio handirik ez izatekotan, gastuak murriztuz eta lan asko eginez, musikari esker bizitzea badago, nahiz eta gogorra izan. Fakturak zelan ordaindu ezberdina da. Gure erabakiak ez du diruarekin zer ikusirik”.



ALVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

Argazkiak: Iñigo Azkona

TALDEA 1997AN JAIO ZEN, Buenos Aires Hiriburu Federalean. Han egin zituzten lehenbiziko kontzertuak: “Taldea eratu eta berehala hasi ginen jotzen; dena dela, Hego Amerikan, Europan dagoen birak egiteko ohitura ezezaguna da, besteak beste hirien arteko distantziak itzelak direlako. Buenos Aiestik kanpora joateko oso talde garrantzitsua izan behar duzu, azpiegitura handia daukana; bestela, akabo. Guk ahalik eta kontzertu gehien ematea genuen xede. Europan berriz, bada 1980ko hamarkadan jaioetako *underground* zirkuitua eta taldeak jo eta ke jotzen ari dira”. Musikarekiko grinak bultzatuta etorri ziren Europara. 1998ko irailaren 20an eskaini zuten lehenengo kon-

Capsula taldeko kideak. Argentinan sortutako banda izan arren, Deustu dute oinarritzko kanpaleku. Hortik abiatzen dira mundua rock zorrotzenaz astintzera.

tzertua Euskal Herrian, Deustuko Gazte Lokalean. Handik aste gutxira, Bilboko Kafe Antzokian egin zuten agerraldia. Ingalaterran, Frantzin eta Espainian ere ibili ziren. Bigarren bidaiarako Buenos Airesen grabatutako diskoak zekaratzaten besapean: “Lehenbiziko diskoak, *Sublime* (1999) eta *Judoka* (2000), genuen tresneria erabiliz grabatu genituen. Diskoetxea ere, La Nena Records, sortu genuen. Diskoak Buenos Airesen banatu genituen”.

Argentinako krisialdiak eztanda egin baino lehenago, Deustun finkatuta zegoen Martin. Coni aurretiko etorriko zen. Hirugarren diskoa Euskal Herrian grabatu zuten, Bilboko DDTrekin. “Hemen biziginen. Nahi genuen gure burua ezagutaraztea, jendeak zer egiten genuen jakin zezala. Horretarako, kanta berriak eta aurreko bietako batzuk sartu genituen *Capsula* (2002) diskoan”. Bisita txartela inprimatuta, errepiderantz abiatu ziren berriro: “2002-2004 tarte hartan, Irlandan, Ingalaterran, Frantzia, Alemanian eta Espainian egon ginen gure lanak, gure musika

aurkezten. Horrela ezagutu gintuzten Madrilgo Lilliput diskoetxeetako; beste disko bat egiteko proposamena egin ziguten eta *Sounds and Circuits* (2007) grabatu genuen. Askok lehenengoa dela pentsatzen dute, Europan banatu zen aurrenekoa izan baitzen eta Espainiako Estatuko hedabideetan agertzen hasi ginelako”.

Diskoen artean alderik badagoen galde-tu, eta beraiek diote etengabeko eboluzioa ikusten dutela: “Estiloa aldatzen doa; sekula ez gara gure soinuarekin konforme geratu. Errepidean eta bilaketan datza ideia; errepideetan eginiko kilometroek urradurak laga dituzte, soinuaren eta gudan. Musika gogortzen du; gitarrak, adibidez, gero eta zorrotzagoak dira. Gure soinuarekin ez badugu aspertu nahi, zerbait berria asmatzeko beharra daukagu. Bestaldekik, diskoak grabatzerakoan izan ditugun bideak ere eragin

handia izan dute. Entsegu lokalik ez geneukanean, kasu, diskoaren formatua akustikogoa zen. Oinarrizkoa, ezinbestekoa baino ez genuen. Artisauek lanak ziren *Sublime* eta *Judoka*. Inoiz, bateria grabatzeko mikrofono bakarra izan genuen eta elementu guztiak banan-banan grabatu behar genituen; bonboa lehen, kaxa gero... normalean, bateria grabatzeko hamabi mikrofono erabiltzen dira. Pentsa, anplifikadorerik ere ez genuen. Baina, arestian esan dugunez, musika egin nahi dugu eta saiatu gara beti tresneria eza horretarako zailtasuna ez izaten. Genuenarekin egiten genuen musika. Horrek ere soinu aldutzen du. Hamar urte pasa dira, gero eta ekipo hobeagoa daukagu”.

Lilliputekoekin egindako *Sounds and Circuits* harekin bi urtez biratu zuten mundua: “Lehen aipatu ditugun herrietan egon ginen berriro, baita Portugalen eta AEBetan ere. Ordurako, hedabideak guri kasu egiten hasiak ziren; laugarren diskoa argitaratu genuenetik, aurreko lanak ere nabarmendu zituzten”.

2008ko amaieran, Berlinen zeudela, Kataluniako B-Core diskoetxeak ezagutu zituzten: “Ziur asko, Europako diskoetxe independente zaharrena da B-Core; hauek ere, disko berria egiteko esan ziguten. Baldintzak oso onak ziren eta egitea erabaki genuen”. *Rising Mountains* (2009) New Yorken grabatu zuten, Ivan Julianekin. Egungo bateria jole Alberto Diezentzat (Elfo Negro, Pateando Porkeria) lehenbiziko diskoa da.

“Ekoizle batekin grabatu dugun lehengoa da: Fleshtones, Heavy Trash edota The John Spencer Blues Explosion taldeen ekoizlea da; gitarra jole mitikoa ere bada, The Clash-en *Sandinista*-n parte hartu zuen. AEBetan jotzen ari ginela ezagutu genuen. Lehen mailako pertsona da, oso umila, oso langilea. Hain lagun egin gara, ezen kalera-tzeaz dagoen bere bakarkako diskoaren banda gu geu baikara”. Diskoa maiatzaren amaieran agertuko da, Euskal Herriko Bloody Hotsak diskoetxearen eskutik. Ivan Julian, Capsula lagun, Andoaingo eta Aritzatxuko jaialdietan izango da uda honetan. Hilabete bi daramatzate disko berria ezagutarazten: “Pasa den hilabetean, Frantzia, Portugalen, Kanadan eta AEBetan egon ginen; Espainian eta Euskal Herrian ere izanak gara. Aurtengoa AEBetan egon garen bigarrenengo aldia da. Jendeak, dagoeneko, ezagutzen gaitu. Geurea ahoz ahoko hedapena izan da. Iaz baino jende gehiago etorri da geu ikustera. Prentsan ere agertu



Rolling Stone aldizkarian idatzi zuten Capsula rock'n'rollaren salbazioa direla

ginen. AEBetako *Rolling Stone* aldizkarian agertu ginen, azken hoge urteotako senior editorearen zutabea”. Texasen ikusi zituen, han eman zuten hirugarren kontzertuan. Gustatu zitzaizkion. Askok rock'n'rollaren salbazioa direla esan zuten.

Alberto Keith Moonekin konparatu zuen eta Martin Pete Townshedin.

Ezinezkoa ematen zuen, duela ez horrenbeste, hemengo rock talde bat mundu mailako birak egiten ibiltzea: “Guk betidanik izan dugu hiri ezberdinetan, hiri askotan, jotzeko grina; mugiarazten gaituen motorra da hori.

Urteak pasa ahala, musikarekin geu bezain erotuta edota gustatuta dagoen jendea ezagutu izan dugu nonahi, eta hori birak egiteko oso baliagarria da. Dena dela, mundu osoan zehar biratzea gauza arrunta bilakatu da Euskal Herriko taldeentzat. Europan jotzeko leku asko dago”. ■